



kritiken hemeroteka

6.765 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

« [Kixoteren lurraldean](#) | [Hautuen aurkako grina](#) »

Azken kritikak

- **Maitasunaren indarra**
Gabriel Korta
Igor Estankona
- **Nola heldu naiz ni honaino**
Kattalin Miner
Hasier Rekondo
- **Herioren mandataria**
Joseba Lozano
Mikel Ayerbe
- **Kixotenean**
Iñigo Astiz
Javier Rojo
- **Azken zakatzak**
Martxel Mariskal
Gorka Bereziartua
- **Ispiluen arteko zirriborroak**
Amaia Iturbide
Alex Gurrutxaga
- **Politikaren atarian**
Rikardo Arregi
Aritz Galarraga
- **Nola heldu naiz ni honaino**
Kattalin Miner
Iratxe Esparza
- **Argiaren hautsa**
Luis Elizetxea
Hasier Rekondo
- **Ez lemaio**
Juan Kruz Igerabide
Javier Rojo

Herioren mandataria / Joseba Lozano / Erein, 2016

Amesgaiztoen haragitzea → Mikel Ayerbe / *Berria*, 2017-04-09

Thrillerraren eta *best seller*-aren parametroetan kokaturiko 2011ko *Argiaren erreinua* nobela argitaratu ostean, 2016ko azaroan kaleratu zuen Joseba Lozanok hizpide dugun *Herioren mandataria* eleberria. Protagonista nagusia Marco Berling medikua da, eta iraganean hiriburuko ospitalean eutanasiaren praktikak burutzeagatik ezarritako hiru urteko inhabilitazioko zigorra dela eta, depresioak jota zentro psikiatriko batean denboraldi bat pasatzen du.

Edonola ere, nobelaren hasieran sona handiko Oscar Miller idazle hipokondriako eta misantropoaren etxeko mediku lanpostua lortzen du, eta idazlearen kostaldeko etxe bakartian bizitzen geratuko da. Horrela, bizimodu aski lasaia eramateko baldintza egokiak izan arren, gauero izaten dituen Amesgaiztoek asaldatzen dute Berling. Irudi kate eta gertaera segida batean bezala lotzen zaizkio Amesgaiztoak: etenaldi gabe, ametsen segidak beste hiru *lagunekin* batera hilketa bat bestearen atzetik burutzen dituzten ehiztariak balira bezala, lehendabizi animaliak akabatzen eta ondotik, jendea hiltzen amaitzen dute, heriotza ankerrak burutuz eta biktimei lepoa moztuz, besteak beste.

Kostaldeko etxe bakartia inguratzen duten parajeek ere zeresan handia dute. Etxe inguruko mortuan dauden hondakinak, itsaslabarren ondoan abandonaturiko itsasargian bizi den emakumearen bizitokia edota bestelako inguruneak ere kondaira zaharrez beterik baitaude, eta elementu horiek guztiek ere eite onirikoa ematen diote medikuaren bizitoki berriari. Eta Marco pixkana-pixkana joango da herriko biztanleekin harremanak izan eta kondaira horiez guztiez jabetuz.

Une batetik aurrera, ordea, Amesgaiztoak eguneroko bizitzan haragitzen hasiko zaizkio protagonistari, ametsen eta errealtatearen langa lausotuz, eta ia erotzerainoko efektua sortuko dute medikuarengan. Izan ere, Amesgaiztoetan bezala, *ehiztariak* medikuari jazartzen hasiko zaizkio, eta ez da denbora asko pasako kostaldeko herri lasaian ere aurreneko hilketak gertatzen hasteko. Horrenbestez, Amesgaiztoko elementuen antzeko gertakizunak jasaten hasiko da

Artxiboa

- Apirila 2017
- Martxoa 2017
- Otsaila 2017
- Urtarrila 2017
- Abendua 2016
- Azaroa 2016
- Urria 2016
- Iraila 2016
- Abuztua 2016
- Uztaila 2016
- Ekaina 2016
- Maiatza 2016

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Berria (863)
- Argia (858)
- El Diario Vasco (813)
- El Correo (737)
- Gara (555)
- Egunkaria (505)
- Deia (362)

→ **Idazlan guztiak**
Teresa Avilakoa
Jose Luis Padron

→ **Elur bustia**
Pello Lizarralde
Igor Elordui Etxebarria

→ **Parranda**
Eduardo Blanco Amor
Gorka Bereziartua

→ **Nola heldu naiz ni honaino**
Kattalin Miner
María Unanue



medikua, eta, azkenean, Miller idazleari kontatuko dio bere sekretu eta ezinegonaren arrazoia. Thriller eta suspensearen osagaiak zedarrizten dute nobelaren garapena, eta, orriek aurrera egin ahala, osagai horien erritmoa ere biziagotuz joango da, ezusteko amaierara arte.

Dena den, eta liburuak bukaera itxi biribila izan arren (biribilegia eta brastakoezia akaso), irakurle hau, ez hotz ez bero, epel utzi du nobelaren bilakaerak. Protagonistaren ezinegona areagotuz joan ahala, inguruko pertsonaiek harri-kartoizkoak dirudite zenbaitetan, intriga areagotzeko agertu eta desagertzen direnak, hain zuzen. Bestetik, emakumezko pertsonaiek jokatzeko duten rola ere hala-moduzkoa da, gizonezkoen objektu huts bilakatzen baitira (euren izaera bigarren mailan utziz), nahiz eta ekintza-katearen garapenean oinarritzko elementu ere badiren.

Azken batean, medikuaren inguruan bilbatzen dira korapilo guztiak, eta suspensearen eta misterioen osagaiak areagotzeko mekanismoak protagonistaren izu laborriaren bilakaera erakustea dute helburu. Eta baiki, nobelak hori islatzen asmatu duela aitortu behar da.

→ El País (151)

→ Aizu! (146)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1416)